

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak bezero mota desberdinak ditu.

- **Adineko pertsonak:** Adinarekin lotutako galera auditiboa ohikoa da adinekoen artean. Produktu errazak eta erabilerraza eskaintzen ditugu haientzat.
- **Haur eta gazteak:** Haur batzuetan galera auditiboa jaio aurretik izaten da edo umeak adinean hazten diren bitartean gertatzen da. Audifonoak haurrei egokituak eskaintzen ditugu, eta erosoak eta iraunkorrak dira.
- **Gazte eta heldu adinekoak:** Galera auditiboa duten pertsonak, batez ere soinuazko kutsadura edo musikazko jardueren ondorioz. Kalitate handiko, teknologia aurreratuko eta disimulatzeko errazak dira haientzako audifonoak.



Prezioaren arabera ere bezero desberdinak ditugu.

- **Prezioarekiko sentikorrek diren bezeroak:** Askok prezioa faktore garrantzitsua bezala hartzen dute audifonoak erosteko garaian, izan ere, audifonoak maiz garestiak izan daitezke. Bezero batzuk aurrekontu mugatuarekin edo seguruak ez dituztenek bilatzen dituzten aukera ekonomikoagoak izan ohi dira. Kasu horietan, prezioa funtsezkoa da marken eta modeloen artean aukeratzekoan.
- **Erdiko gama:** Audifono erdiko edo sarrera gama dituzten bezeroek aukera egokia bilatzen dute, aurrekontuaren barruan kokatzen diren produktuak. Hauek teknologia gutxiago edo pertsonalizazio gutxiago izan ditzaketen arren, entzumena hobetu dezakete eta prezioan egonkorra dira.
- **Prezio altuagoak ordaintzeko prest egon daitezkeen bezeroak:** Beste bezero batzuk, nahiz eta prezioa kontuan izan, teknologia aurreratua edo konektibitate Bluetooth-a, soinuaren ezarpen automatikoei edo diseinu diskretuagoari balio gehiago ematen diote. Bezero horiek prezio altuagoa ordaintzeko prest egon ohi dira,

baldin eta audifonoek bizitza hobetzeko funtzionalitate gehigarriak eskaintzen badituzte.

Audifonoak saltzeaz gain keinu hizkuntzaren klaseak eskainiko ditugunez, gure bezeroak ez dira entzumen galera duten pertsonak soilik, baita, euren ingurukoak. Hau da, aparatua edo inplantea behar dutenen familiek, lagunek edo lankideek keinu hizkuntzaren klasetara joan daitezke, komunikazioa errazteko eta haiekin modu naturalean eta eraginkorrean elkartrukatzea

- **Entzumen galera duten pertsonak:** Keinu hizkuntza beren eguneroko komunikazioan erabiltzen dituzten pertsonak. Keinu hizkuntzaren erabilera bizitza osorako funtsezko tresna da haientzat, gizartean komunikatzeko.
- **Interesatuta dauden pertsonak:** Keinu hizkuntzak ikasi nahi dituztenak, hala nola, familiek, lagunek edo beste edozein pertsona, asmoa baita entzuten ez duten pertsona batzuekin hobe komunikatzea.



Guk gure bezeroen beharretan egokitutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen ditugu, baita pertsonalizatutako ikuskapenak, entzumena egokitzeko ezarpenak, eta produktuaren mantentze eta eguneratze zerbitzuak baita.

Gure enpresak merkatu segmentatu batean jarduten du hainbat arrazoigatik.

- **Soluzio teknologikoen aniztasuna:** Audifonoak ez dira soilik soinua indartzeko gailuak; teknologia aurreratuak ere dituzte, hala nola soinuaren iragazketa, soinu-inguruneetara egokitzeko gaitasuna eta Bluetooth konexioa.
- **Bizitza kalitatea hobetzea helburu:** Audifonoentzako merkatuaren helburua ez da bakarrik produktu bat saltzea, baizik eta erabiltzaileen bizitza kalitatea hobetzea. Entzumena komunikazioa eta gizarte-interakzioa eragin zuzena duenez, enpresek eskaintzen dituzten soluzioak ahalik eta pertsonalizatuena izan behar dira, erabiltzaile bakoitzaren egoera kontuan hartuta.
- **Demografiakoei dagokion segmentazioa:** Merkatu segmentazioa beste faktore batzuetan oinarritzen da, hala nola adina, bizitza estiloa eta entzumen galera maila. Hori dela eta, audifonoak erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzea beharrezkoa da.